

BICYCLE FACE

Benetako bizikleta aurpegiak

XIX. mendean bizikleta asmatu zenean, emakumeek askatasunari metro batzuk irabazi zizkieten, pedalkadaka. Bizikletak eskaini zezakeen askatasunak beldurra piztu zuen eta askatasuna handitu ahala ugaritu ziren bizikleta gainean ibiltzen ausartzen ziren emakumeen kontrako erasoak. Testuinguru horretan asmatu zuten “Bicycle face” izeneko sindromea.

Begiak zabal-zabalik, masaillezurra estuturik, antzutasuna, nerbio arazoak, neurosia eta tuberkulosia. Eta, noski, arriskutsuena: emakumeen sexu desira kontrolik gabe

KIROLA / Amagoia MUJIKA TELLERIA

Bizikleta asmatu zenean arriskutsu ikusi zen emakumeak bertara igotzea eta era guztietako estrategiak asmatu ziren askatasun pedalkada horiek eragozteko. «Bicycle face» sindromea tartean, emakumeak itsustu eta antzutu egiten omen zituen. Naike Ereñozaga eta Laura Ortiz de Zarate kirol argazkilariek emakume txirrindularien benetako aurpegiak jaso dituzte orain.

handitzea. Horiek ziren XIX. mendean emakumeek pairatuko omen zituzten gaixotasunak orduan sortu eta hedatzen hasi zen asmakizunaren gainean, bizikletan, ibiltzeagatik.

«Gehiegizko ahaleginak, eskulekuaren gaineko jarrera tenteak eta orekari eusteko

ahalegin inkontzienteak bizikleta aurpegi nekatu eta akitua sortzen dute», nabarmendu zuen “Literary Digest” aldizkari espezializatuak 1895ean. «Normalean gorritua, baina batzuetan zurbila, askotan ezpainak markaturik ageri zaizkie, itzal ilunen hasiera narria da begien azpian, eta be-

ti neke aurpegiarekin daude». “Bizikleta aurpegia” izena jarri zioten garai hartako medikuek emakumearen askatasuna murrizteko asmatu zuten gaitzari.

Orain, Skoda etxeak egindako enkargu bati erantzuten, Naike Ereñozaga Orue eta Laura Ortiz de Zarate kirol argazkilariek erakutsi dute zein den emakumeen benetako bizikleta aurpegia, azken Espainiako Itzulian –maiatzaren 1 eta 7 bitartean izan zena– bertako txirrindulariek erakutsi zutena.

Naike Ereñozaga Orue (Mungia, 1977) txirrindularitzan jaio eta hazi dela esan daiteke. «Aita txirrindulari profesionala izan zen eta gero, erretiratu zenean, masajista talde profe-



Ezkerrean, Naike Ereñozaga Orue kirol argazkilaria mungiarra. Eskuin aldean, «Bicycle face» proiektuko zenbait irudi.

BICYCLE FACE. SKODA





sionaletan ibili zen. Horretan aritu da jubilatute arte. Umetak ezagutu dut mundu hori. Gure etxean beti egon dira bizikletak, denok ibili gara bizikleta artean. Baten batek txirrindulari atera behar zuen derrigor eta ni izan nintzen. Orduan nesken txirrindularitzak ez zeukan orain daukan etorkizuna eta utzi egin nuen, ikasketekin jarraitzeko. Gero triatloian ere ibili nintzen. Baina txirrindularitzari lotuta segitu nuen, beti mundu horren bueltan, lasterketak jarraitzen. Argazkilaritza ere betidanik gustatu izan zait eta lasterketetan argazkiak ateratzen hasi nintzen, kirol argazkilaritzaren arloan. Lehendabizi triatloian hasi nintzen argazkiak egiten eta, gero, txirrindularitzan».

Txirrindularitza bizitzeko beste toki bat topatu du, beraz, Ereñozagak. «Bai, lortu dut berririo saltsan sartuta egotea. Izan ere, txikitan oso sartuta egoten nintzen saltsan, aitararen inguruan. Edozein kategoriatako lasterketetara joaten ginen, profesionalen lasterketetan autoan joaten ginen... oso barrutik bizi izan dugu eta orain berriz ari naiz oso barrutik bizitzen, baina kamerarekin. Oso polita izaten ari da».

Lanaldi erdiz geologoa da eta beste erdiz, kirol argazkila-

ria. «Duela hiru urte hasi nintzen profesionalki txirrindularitzako argazkilari bezala, gero eta eskaera gehiago nituela ikusita. Orain eskaera mordoa dauzkat eta ezin diet denei baiezkota eman. Ez dut ehuneko ehunean lan egiten argazkilari bezala, baina pentsatzen ari naiz eskaera nahikoa dudala erabat horretara jartzeko. Une horretan nago, gauzak pentsatzen».

Txirrindularitza taldeetatik eta lasterketen antolatzaileen-gandik iristen zaizkio enkargu gehienak. Aurten ilusio bere-

Ezkerreko irudian, Idoia Eraso eta Yurani Blanco txirrindulariak, lasterketatik kanpoko une batean. Eskuin aldean, Andrea Perez urduri lasterketa hasi aurretik, kide baten besarkada jasoz. Beheko partean, Espainiako Itzuliko beste une bat.

BICYCLE FACE. SKODA

zia egin dion eskaera jaso du: emakumeen Espainiako Itzulua. «Normalean gizonezkoen eta emakumezkoen Espainiako Itzuliak Charly Lopez argazkilariak egiten ditu. Asko miren dut. Aurten ezin zuen emakumeen itzulua osorik jarraitu. Elkar ezagutzen dugu, hainbat lasterketatan ibili garelako biok, eta niri proposatu zidan Espainiako Itzuliko argazkiak egitea. Sekulakoa izan zen. Niretzat Estatu mailan dagoen kirol argazkilari onenetakoa da eta berak proposamen hori egitea sekulako

oparia izan zen. Hemengo Itzulua ere ezin izan du jarraitu Charly Lopezek eta niri deitu zidaten antolatzaileek. Gero eta lan gehiago daukat», adierazi du.

Une gozoa bizi du, argazkilaritza eta txirrindularitza uztartzeko aukera ematen diolako kirol argazkilaritzak. «Egia esan, inoiz ez nuen pentsatu kirol argazkilaritza bi gauzak uztartu eta horretatik bizitzeko aukera izango nuenik. Oraintxe ez naiz kirol argazkilaritzan ari ehuneko ehunean, baina aukera horri buruz pentsatzen ari naiz».





Ezkerrean Usoa Ostolaza eta, eskuinean, Idoia Eraso. Biak erlojuaren kontrako lasterketa hasi aurretik, prestaketan. BICYCLE FACE. SKODA



TOURRERAKO, AKREDITATUTA
Frantziako Tourra Euskal Herri-ritik pasatuko den egunotan, errepide bazterrean eta bizikleta tartean ibiliko da Naike Ereñozaga. Kostatu zaio pixka bat, baina lortu du akreditazioa. «Akreditazioa eskatu nuen, baina ez neukan lortzeko itxaropen handirik. Finean, hasten ari naizen argazkilari bat naiz eta oso akreditazio gutxi ematen ditu ASOk –Tourraren antolatzailea–. Nire lanaren lagin bat eskatu zidaten eta emakumeen Espainiako Itzuliko argazkiak bidali nizkien. Eta, azkenean, lortu dut akreditazioa. Oso pozik nago. Tourrerako akreditatuta egotea sekulakoa da. Printzipioz ez daukat enkargurik, baina txirrindularitza argazkilaria izanda eta Tourra etxe ondotik pasatuta, ezin nuen aukera galtzen utzi».

Eta badu erronka jarrita: Wout van Aert. «Izugarri gus-
tutzen zaidan txirrindularia da eta argazkiak egin nahi nizkioke. Nire txirrindulari gustukoena da eta badakit Tourrera datorrela. Aita izan-
go omen da eta horren arabe-
ra, beharbada, planak aldatu-
ko ditu. Baina, horrez gain, izugarrizko ilusioa egiten dit Tourra etxe ondotik pasa-
tzeak. Eta bereziki pozten

«Bicycle face» proiektuaren funtsa honako hau da: emakume argazkilarien begirada emakume txirrindularien gainean jarrita. Naike Ereñozaga eta Laura Ortiz de Zarate aritu dira

XIX. mendean asmatu zuten bizikleta aurpegia izeneko sindrome hark ez zituen emakumeak bizikletatik jaitsarazi eta horren seinale da emakumeen txirrindularitzaren ibilbidea

nau nire semeak ere hori guztia bizitzeak».

«BICYCLE FACE» PROIEKTUA
Gatozen Skodak egindako en-
kargura: «Bicycle face» proiektua. Emakume argazkilarien begirada emakume txirrindularien gainean jarrita. Hori da proiektuaren funtsa.
XIX. mendean asmatu zuten bizikleta aurpegia izeneko sindrome hark ez zituen emakumeak bizikletatik jaitsarazi eta horren seinale da emakumeen txirrindularitza egiten ari den bidea. Hori jaso nahi izan dute argazki proiektu horretan Ereñozagak eta Ortiz de Zaratek. Kanarietako kirol argazkilaria, azken hori.
«Lan asko egiten dut emakumeen txirrindularitzan eta sekulako poza ematen dit nola hazten ari den ikusteak. Nire garaian –1990eko hamarkada ha-

sieran– asko maite genuelako eta oso ondo pasatzen genuelako ibiltzen ginen txirrindularitzan, baina bagenekien ez genuela ibilbide luzerik egingo. Orain aldatu egin da hori eta sekulako poza ematen dit».
Aldatu da panorama, baina bada zer hobetua oraindik. Horren adibide da duela aste batzuk bertan behera utzi behar izan zutela “Tour des Pyrénées” lasterketa. Antolaketa txar-
ren ondorioz, sekulako kaosa gertatu zen, ez zen trafikoa itxi lasterketarako eta txirrindulariek trafiko irekiarekin aritu behar izan zuten, horrek dakarren arriskuarekin. Azkenean, berez hiru egunekoa zen lasterketa bertan behera geratu zen azken egunean. Eta ordurako talde batzuk erretiratuta zeuden, haserre, pentsatzekoa denez. «Maila altuko lasterketa zen, oso ederra, ondo antolatuz



Ezkerreko irudian, Letizia Brufani. Eskuin aldekoan, Marina Garau. Lasterketaren une eta aurpegi desberdinak jaso ditu proiektuak. BICYCLE FACE. SKODA



gero. Azkenean, segurtasun arazoengatik, bertan behera geratu zen. Hori ez litzateke inoiz gertatuko gizonezkoen lasterketa batean, ezta amateur mailan ere. Emakumezkoen gorengo mailan gertatu da eta ziur aski jende asko ez da enteratu ere egin. Oraindik asko daukagu egiteko».

Egiteko dagoen bide horretan harri bat gehiago jarri nahi dute Ereñozagak eta Ortiz de Zaratek, emakumeen txirrindularitzak egun dauzkan aurpegiak kamerarekin harrapatuz. «Saia-
tu gara jasotzen ez bakarrik lasterketako momentuak, baita hortik kanpokoak ere. Lasterketa aurrekoak eta ostekoak oso garrantzitsuak dira. Lasterketan zehar ahalegina eta kontzentrazioa irudikatzen zuten irudiak jasotzen ahalegindu gara. Baina lasterketaren aurretik ere badi-
ra oso une ederrak eta bereziak.

Lehen etapa erlojuaren kontra-
koa izan zen eta niretzat oso be-
rezia izan zen abiatu aurretik txirrindulariek zituzten emo-
zioak jaso ahal izatea. Erlojuar-
en kontrakoaren aurretik bero-
ketan aritzen dira, arrabilean. Oso une intimoa da eta berezia izan da hor egon ahal izatea. Txirrindularia oso kontzentra-
tuta egoten da eta zu kirolaria-
ren atmosfera horretan sartzen zara... oso une magikoa da», azaldu du mungiarrek.

Izerdi patsetan dagoen kiro-
lariaren begi gorrituak. Horixe jaso du beste irudi batean. «Irudi horiek asko kontatzen dute. Espainiako Itzuliko lehen etapa da, erlojuaren kontrakoa, eta txirrindularia horretara dago erabat. Begie-
tan ikusten da gero etorriko denaren printza bat».

Urduritasuna ere sumatzen da bizikleta aurpegietan. «Ba-

zen neskato bat lehenbizikoz parte hartzen zuena UCI las-
terketa batean. Abiatu baino lehen, negarrez hasi zen, seko urdurituta. Beste txirrindulari bat gerturatu zitzaion besa-
katzera. Une horiek ere jaso ditugu».

“Bicycle face” proiektua oraingoz sarean bakarrik ikus daiteke, Skodaren webgunean. «Uztailean Madrilen jarriko dituzte argazkiak, erakusketa

«Saiatu gara jasotzen ez bakarrik lasterketako momentuak, baita hortik kanpokoak ere. Lasterketa aurrekoak eta ostekoak oso garrantzitsuak dira; une magikoak, askotan»

«Bicycle face» proiektua oraingoz sarean bakarrik ikus daiteke, Skodaren webgunean. Uztailean Madrilen erakusketa bat izango da eta gero toki gehiagotan izatea espero dute

fisiko batean. Eta gero, eran-
tzunaren arabera, toki gehia-
gotara eramateko asmoa dute. Izugarritzko ilusioa egingo li-
dake erakusketa Euskal Herri-
ra ekarri ahal izateak. Ia, ikusi-
ko da».

Denbora da poligrafo baka-
rra. Bicycle face sindromea-
ren mehatxua jasan zuten emakumeek burua altxatuko balute, zer ikusiko lukete? Ereñozagak garbi dauka: «Gi-
zonen txirrindularitza mo-
duetatik oso hurbil dagoen emakumeen txirrindularitza bat ikusiko lukete. Badaude desberdintasunak. Horietako bat, emakumeena askoz ger-
tuagoko txirrindularitza bat dela. Gizonezkoenak ez luke hain urruna izan beharko. Baina burua altxatuko balute, emakumeen lasterketa ede-
rrak eta oso lehiatuak ikusiko lituzkete».